

**PREMIAZKO DEIALDIAREN JAKINARAZPENA, SURBISAN, LANBIDEREN BITARTEZ ARKITEKTO TEKNIKO APAREJADORE BAT HAUTATU ETA, ALDI BATERAKO, LANPOSTU BAT BETETZEKO (LAN POLTSA), SUSPERRALDI, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA-EUOPAR BATASUNeko NEXT GENERATION EU FUNTSAK ETA BEROIEN BILAKAERA FASEETAN KUDEAKETA INDARGARRI IZAN DADIN**

**Aurrekariak:**

1. Surbisan jasotako espedienteak tramitatu eta ebazteko premiazko beharra, Garraio Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren 853/2021 Errege Dekretuak haien tramitaziorako exijituta bezala. Horretarako, oinarri hartu da Garraio Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, SURBISA NEXT GENERATION FUNTSAK kudeatzeko Birgaitze Bulego eta Erakunde Laguntzaile izendatu izana.
2. Programaren egungo gauzatze-egoera, Surbisan jasotako espediente eskaera kopuru eskerga kudeatzeko zailtasunak, bai eta Eusko Jaurlaritzak SURBISARI ezarritako helburuen gehikuntza ere.
3. Kontratazioa, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Dekretuaren bosgarren Xedapen gehigarriari jarraituta egingo da; izan ere, bertan ezartzen da aldi baterako kontratazioa Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia eta Europar Batasuneko Funtsen eremuan.
4. Langileen ordezkariarekin bilera, kontratazioaren premia zenbaterainokoa den jakinarazteko eta ondorengo KONTRATAZIO OINARRIAK sortu eta adosteko:

**Lehena. Xedea eta prozedura.**

Oinarri hauen xedea da baldintzak ezartzea ARKITEKTO TEKNIKO APAREJADORE lanposturako pertsona bat hautatu eta lan-kontratua egiteko; horretarako, Surbisak kontratatuta duen Mos&Ross Abogados Lan Aholkularitzaren zerbitzuak erabiliko ditu eta, era berean, LANBIDEN tramitatuko da lan-eskaintza. Kontratua aldi baterakoa izango da, % 100eko jardunaldian, hautatzen denetik hasita 2024ko abendura arte, hasiera batean; hala ere, luzatu egin ahalko da 2026ko abendura arte, hots, NEXT GENERATION FUNTSEN PLANA amaitzen denera arte.

Kontratazio honen iraupen zehatzaren kontratazioa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak baimendua dago, kontratuen 406 ereduaren bitartez, Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren betearazpenerako NEXT GENERATION EU Funtsek Finantzatzutako Programei lotuta egoteagatik, eta abenduaren 28ko 32/2021 Errege Dekretuaren bosgarren Xedapen gehigarriari jarraituta egingo da; izan ere, bertan ezartzen da aldi baterako kontratazioa Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia eta Europar Batasuneko Funtsen eremuan:

*“Sektore publikoa eratzen duten erakundeek iraupen jakin bateko kontratuak egin ahalko dituzte, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuaren 2. artikuluan araututakoak, zeinen bidez premiazko neurriak onesten diren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazteko, beti ere, beren beregi Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia betearazteko xedeari lotuta dauden kontratuak direnean. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, ere berean, Europar Batasuneko funtsen finantzatzutako aldi baterako programak betearazteko beharrezko diren eta iraupen jakin bat duten beste kontratu batzuk egitean ere. Kontratu horiek Konstituzioko berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin bat eginez burutuko dira, eta*

*abenduaren 28ko 20/2021 Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan ezarritako moduan”.*

Hori guztia SURBISA udal enpresaren lan-taldean aldi baterako lanean aritzeko, eta NEXT GENERATION FUNTSEN PLAN honen kudeaketa indartzeko, behin SURBISA eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren arteko Hitzarmenaren BI ALDEKO JARRAIPEN BATZORDEAK ESLEITUTAKO BALIABIDEetako esleipen berrira jardunaldiaren % 100eko arduraldia izango duen APAREJADORE lanpostu bat gehiago eranstean duen erabakia 2023ko maiatzaren 24an hartutakoan.

Beharrezko eta premiazko zat hartzen da ahalegin hori, orain arte jasotako eskaerak pilatu egin baitira; erabaki honi esker, Surbisaren deialdiaren espedienteon tramitazioari erantzun ahalko zaio.

***Hautatze hori baliatuko da Surbisarako Arkitekto Tekniko Aparejadore postuaren balizko behin-behinekotasunetarako “Lan Poltsa” gisa.***

#### **Bigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak.**

Lan kontratazioa aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraituz egingo da; hala ere, hautatze prozedura Oinarri hauek arautuko dute.

Bai soldata bai gainerako lan-baldintzak enpresaren lan-hitzarmenean ezarritakoak izango dira.

Kontratuak 15 eguneko probaldia izango du. Berehala hasiko da lanean, luzeen jota, 20 egun naturaletan, hautatzea jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

#### **Hirugarrena. Lanpostuaren funtzio eta ardurak.**

Kontratatzekoa den lanpostuaren funtzio eta ardurak deialdiaren gaia den lan kategoriari dagozkionak izango dira, eta Surbisako lan-taldeari NEXT GENERATION FUNTSEN PLANeko espedienteen kudeaketan laguntzera edo Surbisaren Programa honen barruan sortutako beste beharrian batzuetara zuzenduko dira bereziki. Honako hauek izango dira funtzio nagusiak:

-3 Programa eta 4 eta 5 Programak izeneko Next Generation espedienteen tramitazio teknikoa eta administratiboa.

-Telefono-deiak erantzun, jendaurreko arreta, eta espedientei dagozkion dokumentuei sarrera eman eta aipatutako Planaren Informatika Aplikazioan kudeaketa.

-Plan horretako espedienteen kontrola eta jarraipena, ebatzen diren arte.

-Surbisako langile-taldekoak diren profesionalen taldeekiko koordinazio zuzenean, Next Generation Funtzen Planarekin lotutako zeregin teknikoak behar bezala burutuko ditu.

### **Laugarrena.- Lanpostua betetzeko hautagaiak bete beharreko baldintzak.-**

Hautatze prozesuan parte hartzeko, hautagaiak honako betekizun orokor eta espezifiko hauek bete beharko dituzte hautagaitzak aurkezteko epea amaitu aurretik, eta hautatze prozesuan zehar horiei eutsiko diete, harik-eta dagokion lan-kontratua formalizatzen den arte:

- ARKITEKTURA TEKNIKOKO GRADU titulazioaren –edo pareko titulazioaren- jabe izatea.
- Nahitaezko erretiro-adina ez gainditzea.
- Hilabete 1ean, luzeen jota, lanean hasteko aukera izatea.
- Gutxienez 6 hilabeteko eskarmentua, administrazio espedienteak tramitatzen.
- Energia Eraginkortasun eta EAT dokumentu teknikoak idazten eta interpretatzen nahikoa ezagupen izatea.
- Word, Excel, Outlook ezagutzea.
- Euskara maila, B2.

Era berean, finkatutako data baino lehen hautatua den pertsona, lan-kontratua sinatzeko eta lanean hasteko, LANBIDEn izena emanda eta enplegu-eskatzaile gisa agertu behar du. Egitate hori kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko da.

### **Bosgarrena.- Hautagaiak onartzea.-**

Hautatze fasean onartuak izateko irizpideak zehaztu dira:

1. Behin lanbideak eskaintza zabaldua, lehenengo 5 egun naturaletan inskribatu eta Surbisan jasotako eskaerak hartuko dira kontuan (hau da, deialdi egunean eta hurrengo 4 egunetan).
2. Seigarren egunetik aurrera ez dira kontuan hartuko jasotako inskripzioak.
3. Behin dokumentazioa egiaztatu eta betekizunak betetzen direla ikusita, hautagaien onespena edo kanpoan uztea erabakiko da.
4. Onartutako hautagaien zerrenda Epaimahai Kalifikatzaileak onartuko du eta hautagaiei jakinaraziko zaie, bai eta hurrengo proben eguna eta ordua ere.

### **Seigarrena.- Epaimahai Kalifikatzailea.-**

Frogen Epaimahai Kalifikatzailea honela egongo da osatuta:

- Presidentea: Elkarteko Presidentea edo honek eskuordetutako pertsona bat
- Mahaikidea: Elkartearen Administrazioko Arduraduna edo honek eskuordetutako pertsona bat
- Epaimahaikidea: Langileen ordezkaria.

Idazkaria: SURBISako Zuzendari Nagusia edo honek eskuordetutako pertsona arituko da lan honetan.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du eta beronen objektibotasuna bermatzeaz arduratuko da. Era berean, antolamendu juridikoarekin bat eginez, Oinarriak aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak argituko ditu eta

hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu prozesuaren garapenean ordenari eusteko; horretarako, bertan aurreikusi gabeko balizkoekin lotuta, dagozkion irizpideak ezarriko ditu.

Idazkari lanak betetzen dituenak hautatze prozesuan burututako jarduera eta frogen Akta beteko du; bertan, izendapenen proposamena eta ordezkoen lehentasun ordena jasota geratuko da. Behin Epaimahaiak onetsitakoan, Aktaren berri emango zaio Administrazio Kontseiluari; hala ere, kontratazio erabakia Surbisako Presidenteak hartuko du eta kontratazioa Zuzendariaren bitartez formalizatuko da.

### **Zazpigarrena.- Hautatze Probak.-**

Onartuak izan diren hautagaiak bi proba pasa beharko dituzte hautatze prozesu honetan:

- A) **Merituen balioespena (0 puntutatik 5era)**
- B) **Ezagupen eta gaitasunei buruzko elkarrizketa (0 puntutatik 15era)** A proban puntuazio onena lortu duten lehenengo bost hautagaiekin egingo da elkarrizketa; berdinketa bada, 4 edo 6 izan litezke elkarrizketatuak, Epaimahaiak erabakitakoaren arabera.

### **Zortzigarrena.- Proben garapena.-**

Epaimahai Kalifikatzaileak ariketak burutzeko deialdira, adierazitako leku, egun eta orduan, agertzen ez diren hautagaiak, nahiz eta ezinbesteko kausaz izan, hautatze prozesutik kanpo geratuko dira behin betiko.

Hautagaiak telefonozko hitzordu bidez eta mezu elektronikoko bidez izango dira deituak.

#### **A) Merituen balioespena. (0 puntutatik 5era)**

Hautatze prozesurako onartutako hautagaiak merituen balioespen fasean sartuko dira; merituen Epaimahai Kalifikatzailearen Idazkaritzak aztertuko ditu, eta txosten bat igorriko du Epaimahaiak onetsi dezan.

Lortzekoak diren puntu gehienezkoa Lanbideko CVan oinarrituta balioetsiko da, honako irizpide hauei jarraituta:

#### **A.1 Betetzekoa den lanpostuko eginkizun berberetan edo antzekoetan duen lan eskarmentua (0 puntutatik 3ra).**

- a) Puntu 1 arte: Eraikuntza enpresa batean urte beteko lanagatik, 0,25 puntu
- b) 1,5 puntu arte: Hirigintzako udal enpresa batean edo helburu berbera duen erakunde publiko batean urte beteko lanagatik 0,5.
- c) 0,5 puntu arte: 0,05 puntu, buruturiko EEE, Auditoria Energetiko edo EIT bakoitzeko, bai norberak bai lan egiten dueneko enpresak sinatutakoa.

A.2. Ikasketak (0 puntutatik 1,5era)

- a) 0,25 puntu, 10 ordu baino iraupen luzeagoko ikastaro hauetan: EEE, Auditoria Energetikoa edo EIT gaitzat duen ikastaro berezitu bakoitzeko.
- b) 0,05 puntu, 10 ordu baino iraupen laburragoak izan eta lanbidearekin edo hautatzen deneko lanpostuarekin lotutako ikastaroengatik.

A.3. Hizkuntzen ezagutza (0 puntutik 0,5era)

- a) Euskarazko B2 maila gaindituta izatea: 0,35 puntu.
- b) Beste hizkuntza batzuetan B2 maila izatea: 0,05 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

Proba horren balioespena eginda, hurrengora pasako direnak hautatuko dira.

**B) Ahozko proba eta elkarrizketa (0 puntutatik 15era):**

Proba hau baztertzailer da, eta egintza bakar batean burutuko da.

Epaimahai Kalifikatzaileak elkarrizketak dirauen bitartean galderak egin ahalko ditu, zerbait argitzeko edo zabalago azaltzeko eskatu, bai eskatutako ezagupenei buruzko kasu praktikoan ganean, bai lanpostua betetzeko lan eskarmentuaren ganean eta pertsonaren ezaugarrien ganean; horrela, Surbisan bete beharreko lanpostura ondoen egokitzen den pertsona kontratatu ahal izango da.

Hautagaia lanposturako egokia den jakitea izango da xedea: talde-lanerako gaitasuna, antolamendu gaitasuna, Surbisako taldearekiko eta komunitatearekiko konpromisoa eta erantzukizuna hartuko da kontuan, bai eta bere ikuspegi proaktiboa eta berritzailea ere.

**Bederatzigarrena.- Ariketak kalifikatzea eta gaindituen zerrenda.-**

Proba-elkarrizketa amaitu ostean, Epaimahai Kalifikatzaileak mezu elektronikoko bidez jakinaraziko die gainditu duten hautagaiei emaitza eta puntuazioa, kasua bada. Puntuazio altuena duen pertsona izango da hautatua (20 puntura arte).

Proba bakoitzari buruzko kontsulta egiteko emaitzari erreklamazioa aurkezteko Surbisaren posta helbidera idatziko da ([seleccion@surb.bilbao.eus](mailto:seleccion@surb.bilbao.eus) horretarako, jakinarazpena egin eta egun natural bateko epea egongo da.

Puntuazioan berdinketa egonez gero, ondoren zehazten diren irizpideei begiratuko zaie, lehenetsun ordena honetan:

- a) Ahozko elkarrizketa frogan puntuazio altuagoa lortu izana.
- b) Lan eskarmentuaren balioespenean puntuazio handiena lortua izana.

**Hamargarrena. Dokumentazioa aurkeztea, kontratatzea eta frogaldia.**

Proposatutako hautagaiak luzeen jota 2 egun balioduneko epean, behin betiko sailkapen ordena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, hautatze prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztuko ditu.

Proposatutako hautagaiak aurtengo ekainean lan egiteko prest egon beharko du. Data horren aurretik, dagokion kontratua egiteko beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko du Surbisako bulegoetan.

Baldin-eta proposatutako hautagaiak eskaintako lanpostuari uko egingo balio edo deialdian eskatutako edo aldi baterako kontratua formalizatzeko beharrezko betekizunak egiaztatu ezingo balitu, ezingo da kontratua izan, bere jarduketa guztiek ez lukete eraginik izango eta bere kontrataziorako lagungarri izan zitezkeen eskubide guztiak galduko lituzke, hasierako eskarian gezurretan ibiltzeagatik izan lezakeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe. Balizko horretan, kontratazio proposamena egingo da, amaierako puntuazioaren arabera ordenari begiratu, hurrengo lekuan legokeen pertsonaren alde, eta hori guztia eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direla aurretik egiaztatuta.

Era berean jokatu da kontratatutako hautagaiak aurrean finkatutako probaldia (15 egun) gainditzen ez badu.

Organo eskudunak Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako hautagaia kontratatuko du, behin oinarri honetan aipatutako dokumentazioa aurkeztutakoan.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 24an.

*Surbisako Langileen  
Ordezkaría*

*SURBISAKO Administrazio  
Arduraduna*

*SURBISAKo Zuzendari  
Nagusia*

*Izp.: Argiñe Vidal Bóveda*

*Izp.: Rafael López Navarro*

*Izp.: Marta Ibarbia Aguirrezabala*